

## EUSKO LEGEBILTZARRA

### Sozietatearen izena

Parlamento Vasco.

### IFK

S0133001H

### Izaera

Administrazio publikoa.

### Kontabilitate-araubidea

Publikoa.

### Aurrekontu-araubidea

Mugatzaila.

### Sorrera

Eusko Legebiltzarra sortu zen 1979ko urriaren 25ean [Gernikako Autonomia Estatutua](#) onartu izanaren ondorioz. 1980ko martxoaren 31n egin zuen lehen bilkura, Bizkaiko Batzar Nagusien egoitzan, Gernikako foru-hiribilduan

### Sail-atxikipena

Ez da aplikatzekoa.

### EJSN

8411 Herri Administrazioaren jarduera orokorrak.

### Funtzioak

Eusko Legebiltzarra Autonomia Erkidegoko herritarren nahiaren ordezkari-organoa da, eta legegintza ahala baliatzen du, aurrekontuak onesten ditu, eta Jaurlaritzaren ekintza bultzatu eta kontrolatzen du, hori guztia lurralde historikoetako erakundeen eskumenei kalterik egin gabe.

Legeak egitearekin eta gobernuaren ekintza kontrolatu eta bultzatzearekin zerikusia duten oinarriko eginkizunez gain, Legebiltzarrak beste jarduera batzuk garatzen ditu, besteak beste:

- Izendapenak; honako hauek hautatzen ditu: Arartekoa eta Herri Kontuen Euskal Epaitegia, autonomia-erkidegoaren ordezkari diren hiru senatariak, Euskal Irrati Telebistako Administrazio Kontseiluko kideak eta abar.
- Diputatuen Kongresuan lege-proposamenak aurkeztea.
- Konstituzio Auzitegian, Gorte Nagusietako legeen aurkako errekurtsioak aurkeztea.

### Sailkapena kontabilitate nazionalean

Eskualde Administrazioiko Herri Administrazioak.

### Legebiltzarreko organoak

Legebiltzarreko **lehendakariak** Legebiltzarra ordezkatzeko beste organo batzuekiko harremanetan, eta eztabaidak antolatu eta zuzentzen ditu, Erregelamendua betearaziz. Gainera, erakundearen diziplinazko eta barne-erregimeneko eskumenak hartzen ditu bere gain.

**Mahaia** Ganbera zuzentzen duen organoa da. Lehendakariak, bi lehendakariordek eta bi idazkarik osatzen dute, eta Osoko Bilkurak hautatzen du legegintzaldiaren hasieran. Organo horrek erakunde-mailako funtzioak betetzen ditu, esaterako, ekimenak eta izapidetutako beste gai batzuk kalifikatu eta onartzea, eta legebiltzarraren barne-administrazioa.

**Bozeramaileen Batzordea**, legebiltzar-taldeetako bozeramaileez osatua. Mahaian ez bezala, organo horretan alderdi guztiak daude ordezkaturak, eta indar politiko guztiak beren iritzirik ematen dituzte legebiltzarreko lan eta eztabaiden prestakuntzari dagokionez.

**Batzordeak** lantaldeak dira. Gai jakin batzuek espezializazioa eskatzen dute nolabait, eta ez dira Osoko Bilkurara zuzenean eramaten. Gai horiek batzordeen artean banatzen dira. Batzordeetan talde guztiak daude ordezkaturak, bakoitzak zenbakitan duen garrantziaren arabera. Batzordeek ponentziak sor ditzakete, hau da, gai jakin bat aztertzeko lantaldeak.

**Diputazio Iraunkorrak** jarduten du Legebiltzarra ohiko bilkuraldietatik (irailtik abendura eta otsailtik ekainera) kanpo dagoenean edo legegintzaldien arteko aldietan. Gai larriei heltzen die, eta horrela legebiltzarraren iraunkortasuna ziurtatzen da. Presako Legegintza, Araudi eta Gobernurako Batzordeak dihardu Diputazio Iraunkor gisa.

**Osoko Bilkura** legebiltzar-organo nagusia da. Ganberako kide guztiak osatua, gai garrantzitsuenei buruz eztabaidatzen du eta behin betiko erabakiak hartzen ditu. Gobernuako kideek eta legebiltzarrak hautatutako senatariek eskumena dute Osoko Bilkuraren bileretara bertaratzeko, lehendakariaren agintaritzapean.

## **2013ko aurrekontuak**

[2013ko aurrekontuak](#)

## **2013ko Aurrekontuen Likidazioa eta Urteko Kontuak**

[2013ko ekitaldiko aurrekontu arruntaren likidazioa.](#)

## **Sozietatearen helbidea**

Becerro de Bengoa, 01005 Vitoria-Gasteiz (Araba)

## **Webgunea**

[www.parlamentovasco.euskolegebiltzarra.org](http://www.parlamentovasco.euskolegebiltzarra.org)